

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 71 KULTURA ZUZENDARITZA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 71 DIRECCIÓN DE CULTURA

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### **I. MEMORIA**

Programa honen helburua Kultura Zuzendaritzako langile gastuak finantzatzea da.

Zerbitzuen erronka estrategikoak, helburuak eta ekintza planak aztertu dira.

#### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA**

Kultura sektorea garrantzitsua da berez, bere aztarna ekonomikoari eta enpleguari dagokienez. Halaber, ekonomia osoan berrikuntza sustatzen du, eta eragin sozial positiboko beste bide askori laguntzen die (ongizatea eta osasuna, hezkuntza, inklusioa, hiri berroneratzea, etab.). Eta pandemiak gehien erasandakoen artean dago.

Espazioetan oinarritutako azpisektoreak (museoak, arte eszenikoak, zuzeneko musika, jaialdiak, zinema, etab.) izan dira urrutze sozialeko neurrien eragin handiena jasan dutenak. Diru sarreren beherakada bortitzak arriskuan jarri zuen haien finantza iraunkortasuna, eta, horren ondorioz, soldata txikiagoak eta kaleratzeak izan dira, eta horrek eragina izan du hornitzaileen balio katean, bai sormen sektoreetan, bai ez sortzaileetan.

Krisi horren ondorioek kultur ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari eta horien aniztasunari eragingo diete datozen hilabeteetan eta urteetan.

Kultura sektorea, neurri handi batean, mikroenpresek, irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta profesional sortzaileek osatzen dute, eta askotan finantza iraunkortasunetik kanpo jarduten dute. Kultura erakunde eta enpresa handiak, publikoak zein pribatuak, kultura ekosistema dinamiko horren mende daude, sormen ondasun eta zerbitzuak hornitzeko.

Covid 19ak eragindako krisiaren ondorioz, kultura beharrezko eta funtsezko ondasun gisa aldarrikatu behar izan genuen berriro ere; izan ere:

- Oinarrizko tresna da desberdinen arteko

#### **I. MEMORIA**

El programa está destinado a financiar los gastos de personal de la Dirección de Cultura.

Se ha realizado la elaboración de análisis de los retos estratégicos, objetivos y planes de acción de los Servicios.

#### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

El sector cultural es importante por derecho propio en términos de su huella económica y empleo. También estimula la innovación en toda la economía y contribuye a muchos otros canales de impacto social positivo (bienestar y salud, educación, inclusión, regeneración urbana, etc.). Y se encuentra entre los más afectados por la pandemia.

Los subsectores basados en espacios (como museos, artes escénicas, música en directo, festivales, cine, etc.) han sido los más afectados por las medidas de distanciamiento social. La abrupta caída de los ingresos puso en riesgo su sostenibilidad financiera y esto se ha traducido en menores ingresos salariales y despidos con repercusiones en la cadena de valor de sus proveedores, tanto de sectores creativos como no creativos.

Los efectos de esta crisis afectarán a la producción de bienes y servicios culturales y su diversidad en los meses, sino años, por venir.

El sector cultural está compuesto en gran medida por microempresas, organizaciones sin fines de lucro y profesionales creativos, que a menudo operan al margen de la sostenibilidad financiera. Las grandes instituciones y empresas culturales públicas y privadas dependen de este ecosistema cultural dinámico para la provisión de bienes y servicios creativos.

La crisis provocada por el Covid 19 nos situó, una vez más, en la necesidad de reivindicar la cultura como un bien necesario y esencial, ya que:

- Es un instrumento básico de convivencia entre

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 71 KULTURA ZUZENDARITZA

elkarbizitzarako.

- Talentua eta ezagutza sustatzen laguntzen du.

- Sektore ekonomikoa da berez, aberastasuna eta enplegua dakarrena.

Lehentasuna daukate osasunak eta gizarte babesak. Baina kultura ez da premiarik gabeko ondasun bat, babesa merezi du, Arabako herritarrek kultura merezi dutelako.

Covid 19aren aurrean jarduteko ardatzak finkatzeko, Kultura Sailak kultur eragileei, artistei eta sortzaileei entzun zien:

- Idatzizko komunikazioa kultur elkarte eta eragileei.

- Bilerak kultura eragileekin eta sektoreko elkarte profesionalekin.

- Gainerako erakundeekin koordinatzea.

- Kulturaren Plan Estrategikoa.

Aipamen berezia **K-Bulegoari**, sektoreari aholkua eta laguntza emateko bulego gisa:

- Lineako zerbitzuak indartzea, laguntzak errazago eskuratzeko.

- Beste erakunde eta instituzio batzuen zerbitzuen antena.

- K-Bulegoak bitartekaritza eta prestakuntza arloetan duen zeregina indartzea.

Gainera, Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zuen Covid-19aren eraginetatik Arabako Lurralde Historikoan Ekonomia Berreskuratzeko Plana, A plana, Arabako ekonomia suspertzeko tresna gisa, epe laburrerako premia neurriak zituena, eta bere estrategia sektore guztien aliantzetan eta parte hartzean oinarritzen zuena.

Neurri horien artean, A Planeko 10. blokeak ("Arabatik Sortzeko") honako jarduketak hauek jasotzen ditu "Kultura sektorea suspertzeko plana"

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 71 DIRECCIÓN DE CULTURA

distintos.

- Contribuye al desarrollo con el fomento del talento y el conocimiento.

- Es un sector económico en sí mismo que aporta riqueza y empleo.

La prioridad es la salud y la protección social. Pero la cultura no es un bien superfluo, merece protección porque la ciudadanía de Álava merece cultura.

Para fijar los ejes de actuación frente al Covid 19, el departamento de Cultura hizo un ejercicio de escucha a los agentes culturales, artistas y creadores:

- Comunicación escrita a las asociaciones y agentes culturales.

- Reuniones con agentes culturales y con Asociaciones profesionales del sector.

- Coordinación con el resto de Instituciones.

- Plan Estratégico de Cultura.

Una mención especial a **K-Bulegoa**, como oficina para el asesoramiento y soporte al sector:

- Refuerzo de servicios on line, para facilitar el acceso a las ayudas.

- Antena de servicios de otras entidades e instituciones.

- Refuerzo del papel de K-Bulegoa en las áreas de mediación y formación.

Además, la Diputación Foral de Álava aprobó mediante Acuerdo 213/2020, del Consejo de Gobierno Foral de 26 de mayo, el Plan de Recuperación Económica del Territorio Histórico de Álava debido a los efectos del Covid-19, Plan A, como una herramienta para la reactivación económica de Álava que contenía medidas urgentes a corto plazo y centraba su estrategia en las alianzas y en la participación de todos los sectores.

Entre esas medidas el bloque 10 del Plan A, "Desde Álava para la creación", dentro del punto 10.1 "Plan de reactivación del sector cultural" y 10.2 "Plan de

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 71 KULTURA ZUZENDARITZA

izeneko 10.1 puntuan eta "Egoera berriko ekitaldiak garatzeko plana" izeneko 10.2 puntuan:

- 1.- Enpresen eta autonomoen gastu arrunterako dirulaguntzen lerroak.
- 2.- Kultura munduko enpresen, autonomoen eta toki erakundeek ekipamenduetan inbertitzeko laguntza lerroa.
- 3.- Kultura proiektuak eta ekitaldiak birdiseinatzeko laguntza, errealitate berrira eta musikarako eta arte eszenikoetarako kanpoko ekitaldiak muntatzeko eta ekoizteko azpiegituretara egokitzeko.

Horretarako, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 366/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen aparteko laguntzen deialdia Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko eta Covid-19ak kaltetutako kultura eta sormen sektorearen susperraldi ekonomikorako, hiru dirulaguntza lerro hauekin:

- "A Planaren laguntzak, gastu finkoak eta egiturazkoak": 334.800 euro.
- "A Planaren laguntzak, inbertsioak": 250.000 euro.
- "A Planaren laguntzak, kultura programak eta ekitaldiak diseinatzeko edo birdiseinatzeko azpiegitura eta ekipamendu gastuak": 50.000 euro.

Bestalde, kultura programazioaren ehuneko handi bati eutsi zitzaion lurraldean, "Kultura segurua da" premisa pean, betiere haren garapena indarrean dauden osasun neurrietara egokituz eta malgutuz, honako premisa hauen arabera:

- Jarduera eta programazioa sortzea, horrek aberastasuna ere sortzen baitzuen lurraldean.
- Eskumen zerbitzuei eustea, horiek ere ekonomiaren susperraldiaren zerbitzura baitaude: Kultur Etxea, Museoak eta Arkeologia eta Ondare Arkitektonikoa.

Laburbilduz, lehentasuna emango zaio kontratazio publikoari eusteari, inbertsioaren bidez jarduera sortzean eta sektoreko enpresa eta autonomoei laguntzean.

Eta, azkenik, sektorea suspertzeko, berpizteko eta

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 71 DIRECCIÓN DE CULTURA

Desarrollo de eventos de nueva situación", se incluyeron las siguientes actuaciones:

- 1.- Líneas de subvenciones para gasto corriente de las empresas y autónomas.
- 2.- Línea de ayudas para inversiones en equipamientos de las empresas, autónomos y entidades locales del mundo de la cultura.
- 3.- Apoyo para el rediseño de proyectos y eventos culturales para adaptarlo a la nueva realidad e infraestructuras de montaje y producción de eventos exteriores, para música y artes escénicas.

Para ello, mediante Acuerdo 366/2020, del Consejo de Gobierno, de 28 de julio, se aprobó la convocatoria de ayudas extraordinarias para la recuperación del sector cultural y creativo del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño, afectado por el COVID 19, abarcando tres líneas de subvenciones:

- "Ayudas Plan A gastos fijos y estructurales" por importe de 334.800 euros.
- "Ayudas Plan A inversiones" por 250.000 euros.
- "Ayudas Plan A gastos infraestructuras y equipamientos para el diseño o rediseño de programas y eventos culturales" por importe de 50.000 euros

Por otro lado, se mantuvo un porcentaje muy alto de la programación cultural en el territorio, bajo la premisa de "La Cultura es segura", siempre adaptando y flexibilizando el desarrollo de esta a las medidas sanitarias en vigor y bajo las siguientes premisas:

- Generar actividad y programación, porque ello generaba también riqueza en el territorio.
- Sostener los servicios competenciales, que también están al servicio de la reactivación económica: Casa de Cultura, Museos y Arqueología y Patrimonio Arquitectónico.

En resumen, una priorización en el mantenimiento de la contratación pública, en la generación de actividad a través de la inversión y el apoyo a las empresas y autónomos del sector.

Y, por último, se diseñó una estrategia de

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 71 KULTURA ZUZENDARITZA

egonkortzeko estrategia bat diseinatu zen, normaltasun berri baten ikuspegiarekin, baina ez zen 2020ko ekitaldiaren amaieran iritsi.

Azken batean, COVID-19ak eragin handia izan du 2020an kultura sektorean, eta, ondorioz, baita Arabako Foru Aldundiaren jardueran ere, sektoreari laguntzeko formuletan egokitu, malgutu eta berritu egin behar izan baitzen, bai eta hasieran proposatutako helburuak berrikusi ere.

Gogoeta horrek hasieran ezarritako lehentasunak berrantolatzea ekarri zuen, eta, beraz, partida batzuk birmoldatzea, beste batzuk gutxitzea eta gutxi batzuk desagertzea.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 71 DIRECCIÓN DE CULTURA

recuperación, reactivación y estabilización del sector con la perspectiva de una nueva normalidad, que no terminó de llegar a final del ejercicio 2020.

En definitiva, la COVID-19 ha tenido en 2020 una gran afectación al sector cultural y por tanto también a la actuación de la Diputación Foral de Álava que hubo de adaptarse, se flexible e innovar en las fórmulas de apoyo al sector y también revisar los objetivos inicialmente propuestos.

Esta reflexión supuso la reordenación de las prioridades establecidas en un inicio y por tanto la reconversión de algunas partidas, la minoración de algunas otras y la desaparición de unas pocas.